



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **Bilboko Udalak eta Metropoli Fundazioak sinatutako negozio juridiko jakin batzuei buruzko txostena**

### **92-SUST-(2017) LEAren proiektua**

#### **Sumarioa:**

I.- Aurrekariak eta txostenaren xedea .....	2
II. Hitzarmenaren figura kontratuarenaren aurrean mugatzea kontratazio publikoan.....	3
III. Bilboko Udalak eta haren mendeko erakundeek hiria birmoldatzeko hainbat proiektuekin lotuta eginiko negozio juridikoen azterketa .....	7
1. Aztertutako negozioen subjektuak .....	7
A. Esku hartu duten erakunde publikoak.....	7
B. Metropoli Fundazioa eta Cities Lab .....	8
2. Negozio juridikoen azterketa.....	10
A. PROMOBISA/Bilbao Next.....	10
a. Bilboko hiria proiektuaren diagnostikoa. ....	10
b. Bilboko hiriaren nazioarteko posizionamendua bultzatzea .....	12
c. Kontratu txikiak .....	14
B. Bilboko Udala.....	16
C. BILBAO EKINTZA .....	18
IV. Ondorioak .....	20

#### **Osoko bilkura**

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Natividad Goñi andrea

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean LEK), arestian aipatutako osaera duenak, Bilboko Udalak eta Metropoli Fundazioak izandako harreman juridikoak lehiari buruzko araudiarekin bateragarriak diren argitzeko, honako txosten hau egin du 2017ko maiatzaren 30eko bilkuran.



## I.- Aurrekariak eta txostenaren xedea

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak (hemendik aurrera, LEA) eskaera bat jaso zuen, hainbat erakunde publikok (Bilboko Udala eta PROMOBISA) Metropoli Fundazioarekin sinatutako hitzarmenak, lehiaketaren ikuspegitik, azter zitzaizkien.

Administrazioek ondasunak eta zerbitzuak eskuratu behar dituzte beren eginkizunei ekin ahal izateko, eta beren ahalmenak betetzeko orduan, ordenamendu juridikoa –lehiari buruzko araudia barne– bete behar dute, baita baliabide publikoen erabilera eraginkorra egin ere.

Horrelako negozio juridikoak hitzarmen izendatzeak Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legea (SPKLTB) ez aplikatzea eragin du, eta, ondorioz, lehia eta gardentasuna mugatu egin dira zerbitzu-emaileak hautatzeko prozesuetan<sup>1</sup>.

Aztertu beharra dago administrazioek araudi hori aipatutako negozio juridikoei ez aplikatzea erabakitzeak lehia interes orokorraren kontra mugatu ahal izan duen.

2. Txosten hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak 3.3.e) artikuluan jasotzen duen eskumenaren barruan emango dugu, hau da, «administrazio publikoei merkatuetan lehiari eusteko edo berreskuratzeko gomendioak zuzentzeko» eskumenaren barruan<sup>2</sup>.

---

<sup>1</sup> Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena (BOE, 276. zk., 2011ko azaroaren 16koa); honako hauek aldatuta: abenduaren 27ko 17/2012 Legeak, BOE-A-2012-15651; otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuak, BOE-A-2013-2030; ekainaren 26ko 8/2013 Legeak, BOE-A-2013-6938; ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuak, BOE-A-2013-7063; uztailaren 24ko 10/2013 Legea, BOE-A-2013-8083; uztailaren 26ko 11/2013 Legeak, BOE-A-2013-8187; irailaren 27ko 14/2013 Legeak, BOE-A-2013-10074; abenduaren 9ko 20/2013 Legeak, BOE-A-2013-12888; abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, BOE-A-2013-13722; urtarrilaren 24ko 1/2014 Errege Lege Dekretua, BOE-A-2014-747; uztailaren 14ko 13/2014 Legea, BOE-A-2014-7468; martxoaren 30eko 2/2015 Legeak, BOE-A-2015-3443; uztailaren 28ko 25/2015 Legeak, BOE-A-2015-8469; irailaren 9ko 31/2015 Legeak, BOE-A-2015-9735; irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuak, BOE-A-2015-9801, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, BOE-A-2015-10566. Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.

<sup>2</sup> EAEko 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



## II. Hitzarmenaren figura kontratuarenaren aurrean mugatzea kontratazio publikoan

3. Hornidura publikoak sortzen duen jarduera ekonomikoa ezinbestekoa da zerbitzu publikoek funtziona dezaten. Administrazioak askotariko esparrutan jarduten duenez, haren ekintzak merkatu guztietan eragiten du.

Kontratazioaren efizientziak zuzeneko eragina du herritarren ongizate-mailetan; izan ere, hautatzeko prozesuetan lehia dagoenean, emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta prezioa murrizteko pizgarria sortzen da, eta hori berez positiboa izateaz gain, diru publikoa herritarrei beste zerbitzu batzuk emateko liberatzeko aukera ere ematen du.

Gainera, zeharka, ekonomiaren produktibitatea hobetzen ez ezik, enpresen eta industrien kalitatea ere indartzen du, eta era horretan, beste ekonomia batzuetan lehiatu ahal izan daitezen laguntzen du<sup>3</sup>.

Garapen teknologikoak handitu egiten ditu kontratazio publikorako prozedura eraginkorrak garatzeari, erabaki publikoen gardentasunari eta lehiarako mugen kontrako borrokari lotutako aukerak. Erabakiak hartzeari dagokionez ere egin behar da murriztapenen azterketa objektibo bat, horren bidez, administrazioaren jarduketek legezko testuetan egokitze formala duten aztertu ez ezik, askoz harago ere joanez.

4. Kontratazio publiko orok, esleitzeko baliatutako prozedura edozein izanik ere, oinarri izan behar dituen printzipioak ezartzen ditu SPKLTBren 1. artikulua. Printzipio horien artean lizitatzailen arteko aukera-berdintasuna, prozesuetako gardentasuna eta lehia askearen zaintza nabarmentzen dira.

Kontratazio-legeriak hitzarmenen eta kontratuen arteko bereizketa materiala ezartzen du, ordea, eta horrek ondorio sakonak ditu bataren zein bestearen arau-eskakizunetan<sup>4</sup>.

SPKLTBren 4. artikulua baztertu egiten ditu, oro har, **hitzarmenak**, bere aplikazio-eremutik, baina horiek zehaztu gabe.

---

<sup>3</sup> OECD PUBLIC GOVERNANCE COMMITTEE. *OECD Recommendation of the Council on Public Procurement*. Eskuragarri hemen: <http://www.oecd.org/gov/ethics/OECD-Recommendation-on-Public-Procurement.pdf>

<sup>4</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren (kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) 12.4 artikulua. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 94-65, 2014ko martxoaren 28koa, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 47. eta hurrengo artikulua. 2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zk.



5. SPKLTBk hitzarmenaren definiziorik egiten ez duenez, haren funtsezko ezaugarriak zehaztera jo ohi izan da<sup>5</sup>.

Lankidetzeta-hitzarmenek **gaitasun** edo **eginkizun** konkurrenteak, osagarriak dituzten edo, gutxienez, **xede komunak** bilatzen dituzten bi subjektu edo gehiago elkartzea exijitzen dute, eta halakoak lortzeko **baliabide** pertsonalak, materialak edo biak **elkarrekin jartzen dituzte**.

Hitzarmena egoteak esan nahi du objektibo komuna dutela berau lortzeko elkarlanean ari diren alderdiek, eta lankidetzeta horri estaldura formala emateko erabilitako tresna juridikoa da hitzarmena<sup>6</sup>.

Hitzarmenak, idatziz formalizatzen denak, aldeen arteko berdintasuna eskatzen du, hortaz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) behin eta berriz errepikatu duen jurisprudentziaren arabera, hitzarmen bat egin ahal izateko, «zerbitzu publikoko misio komun bat» izan behar dute bi erakundeek, eta ez kostubide hutsa (kontraprestazioa, prezio baten edo beste zerbitzu baten truke eskainitako zerbitzua)<sup>7</sup>.

---

<sup>5</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (hemendik aurrera, HAAJAPEL) badu artikulua bat lankidetzeta-hitzarmenei buruz, baina sektore publikoko erakundeen artean oro har egindako lankidetzeta-hitzarmenei buruzkoa da artikulua hori: «6. artikulua. Lankidetzeta-hitzarmenak; 1. Administrazio orokorrak eta bere mendean edo berari lotuta dauden herri-erakundeek elkarri laguntzeko hitzarmenak izenpetu ditzakete autonomia-erkidegoetako dagokien organoekin, beti ere bakoitzaren eskumenen eremuan. (...)». 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1992-26318> (lege hau, indargabetuta egun, indarrean zegoen hitzarmenak sinatu zituztenean)

<sup>6</sup> Ikus zentzu horretan honako hau: MAS VILLARROEL, Luciano J.; SANZ GANDASEGUI, Francisco: *6/07 Irizpena, 2007ko apirilaren 23koa*. ESTATUAREN ABOKATUTZA. Eskuragarri hemen: [http://www.boe.es/buscar/anales\\_abogacia/ANALES\\_07\\_0006.pdf](http://www.boe.es/buscar/anales_abogacia/ANALES_07_0006.pdf). Lankidetzeta-hitzarmenen eta kontratuen artean dauden aldeei buruzko azterketa zehatza egiten dute hor 2000n indarrean zegoen Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren (APKLTB) 3.1.c) artikulua ondo eratarako.

<sup>7</sup> Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2015eko urriaren 6ko epaiak, C-203/14 gaia, Consorci Sanitari del Maresme (ECLI:EU:C:2015:664), 2013ko ekainaren 13a, C-386/11 gaia, Oberlandesgericht Düsseldorf – Alemania) – Piepenbrock Dienstleistungen GmbH & Co. deiturikoak planteatutako epaitu aurreko erabakiaren eskaera. KG / Kreis Düren (ECLI:EU:C:2013:385); 2012ko abenduaren 19koa, C-159/11 gaia, Azienda Sanitaria Locale di Lecce, Università de Salento / Ordine degli Ingegneri della Provincia di Lecce eta beste batzuk (ECLI:EU:C:2012:817), eta Europar Batasuneko Auzitegi Nagusiaren 2009ko ekainaren 9ko epaia, C-480/06 gaia, Europako Erkidegoen Batzordea / Alemaniako Errepublikak Federala (ECLI:EU:C:2009:357). Ikus, halaber, 2014/24 Zuzentarauaren 2.1.10 artikulua eta 31. kontuan hartuzkoa, eta «Batzordeko zerbitzuen lan-dokumentua, EBko kontratazio publikoari buruzko araudia botere esleitzailen arteko harremanetara aplikatzeari buruzkoa (sektore publikoaren barneko lankidetzeta)» SEC (2011) azken 1169, 2011ko urriaren 4koa.



Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (AJL), era berean, honela definitzen ditu hitzarmenak<sup>8</sup>:

«Hitzarmenak dira Administrazio Publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatzen dituzten akordioak. Akordio horiek ondorio juridikoak dituzte, eta baterako xede bat lortzeko sinatzen dira».

AJLk hitzarmenaren kalifikaziotik kanpo uzten ditu jarduketarako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, xede komun batez jarduteko asmo-adierazpen hutsak baino ez badakartzate, betiere konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak formalizatzea eragiten ez badute eta, SPKLTBrekin bat etorri, kontratuen berezko prestaziorik ezin izango dutela xedetzat eduki ere ezartzen du.

AJLk galdatzen du, gainera, hitzarmenak sinatzeko honako hauek egiaztatu beharra dagoela: kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzea, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea, onura publikoko jarduerak egitea, eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzea<sup>9</sup>.

**6. Kontratua** terminoak bi pertsonaren arteko borondate-akordio bat ere izendatzen du. Kasu honetan, alabaina, aldeetako batek zehaztutako zerbait – haren prestazioaren xedea– betetzera behartzen du bere burua, prezio baten truke normalean. Horrenbestez, kontratuetan funtsezko bi ezaugarri daude: **aldebikotasuna** eta negozioa **kostubidezkoa** izatea<sup>10</sup>.

Kontratuetan ez dago eskumen- edo eginkizun-konkurrentziarik, ezta xedearen identitaterik ere; alde bakoitzak bere interesak gogobetetzea bilatzen du.

Zehazki, zerbitzu-kontratuak honela definitzen ditu SPKLTBko 10. artikulua: «Zerbitzu-kontratuak dira objektutzat egiteko prestazio bat dutenak, jarduera bat gauzatuz gauzatzen dena, edo obraz edo horniduraz besteko emaitza lortzera bideratutako egiteko prestazio bat dutenak».

<sup>8</sup> Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua. 2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zk. Errore-zuzenketa, 2015eko abenduaren 23ko BOE, 306. zenbakia.

<sup>9</sup> AJLren 48. artikulua.

<sup>10</sup> ARAGOIKO ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO KONTRATAZIORAKO AHOLKU BATZORDEA. 5/2015 txostena, maiatzaren 12koa, Kontratu baten xede diren prestazioen kasuan elektrifikatze-lanak hitzarmen bidez egiteko aukera. Eskuragarri hemen: <http://www.aragon.es/estaticos/GobiernoAragon/OrganosConsultivos/JuntaConsultivaContratacionAdministrativa/Areas/02 Informes Actuaciones/INFORME 5 2015 COMARCA%20MAESTRAZGO.pdf>.



7. Bi figura horiek **konparatuz** gero, aldeei betebeharrak dakarzkien borondate-akordio bat dagoela bietan ondorioztatu behar dugu. Hala ere, elkarlanean aritzeko ideia nagusitzen da hitzarmenean, batera dituzten xedeak lortzeko, eta, kontratuan, berriz, interesak kontrajarrita daude, edo ezberdinak dira gutxienez, eta kostubidezkotasanaren ideia nagusitzen da<sup>11</sup>.

Ezin da administrazio arteko hitzarmenik planteatu sinatu beharreko negozio juridikoaren bitartez zerbitzu bat diru kantitate baten truke eskaintzen bada soilik.

Jurisprudentziak argi eta garbi zehazten du negozio juridiko bat hitzarmen gisa izendatze hutsak izaera hori eskaintzen ez diola eta kontratazio publikoaren araudia aplikatzea galarazten ez duela. Kontratuen araudia aplikatzeko, haren izaera hartu behar da kontuan, eta ez akordioak zer izenarekin hartzen diren<sup>12</sup>.

Auzitegi Gorenak hauex argitu du<sup>13</sup>:

«Administrazioak egindako lankidetzaz-hitzarmenei buruzko auzia egiaz konplexua da, batez ere haien legezko definizioz ez dagoelako, ezta, orobat, haien izaerari buruz garbi zehaztutako doktrina-kontzepturik ere». Auzitegi Gorenak erakunde publikoen eta pribatuen arteko hitzarmenik egon dadin onartzearen alde egiten du. Auzitegiak berariaz argitzen du, halere, honako hau: «Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin interes publiko bati erantzuteko egiten dituen lankidetzaz-hitzarmenak deitutako kasuan (13/95 Legearen eta 2000ko ekainaren 16ko haren testu bateginaren 3.1.d) artikulua) jurisprudentzia-doktrinak ulertzen du horrelakoek xedapen horietan oinarrituta dauden eta 11. artikulua esplizituki aldarrikatzen dituen publikotasun, lehiakortasun eta aukera-berdintasuneko printzipioen mende egon beharra dutela (2000ko urriaren 17ko, 2001eko urtarrilaren 12ko eta 2002ko abenduaren 20ko epaiak), betiere hain xedea eta Lege horietan edo izaera bereziko administrazio-arauetan erregulatutako kontratuek dutenekin bat badator; hain zuzen, kudeaketa-mandatuari dagokionez –izaera materialekoa edo zerbitzu-prestaziokoa izan– horrela gogorarazten du 1992ko azaroaren 26ko Legearen 15. artikulua».

Auzitegiak esaten du, orobat, honako hau:

«Esku hartzen duten aldeek eztabaidaren xede den negozioari ematen dioten izenak ez du zehaztuko hura arautu behar duen araubide juridikoa zein den, baizik eta haren egiazko izaerak ezarri edo baimendu behar duela aipatutako printzipioak alde batera utz daitezzen».

<sup>11</sup> Ikus zentzu horretan aipatutako Estatuko Abokatutzaren 6/07 Irizpena.

<sup>12</sup> Auzitegi Gorenaren Epaiak, 1989ko otsailaren 6koa eta 1992ko azaroaren 21koa.

<sup>13</sup> Auzitegi Gorenaren Epaiak, Administrazioarekiko Auzien 3. Sala, 2004ko otsailaren 18koa (6693/2001).



### **III. Bilboko Udalak eta haren mendeko erakundeek hiria birmoldatzeko hainbat proiektuekin lotuta eginiko negozio juridikoen azterketa**

#### **1. Aztertutako negozioen subjektuak**

##### **A. Esku hartu duten erakunde publikoak**

8. Bilboko Udalak, botere esleitzaille guztiek bezala, kontratazioari eta lehiari buruzko araudia bete behar du.

9. Bilbao Sustatu eta Garatzeko Elkartea SA (PROMOBISA) 1989an sortutako sozietate anonimo bat da. Udal-kapitala du. 2010etik BILBAO NEXT SAU (Bilbao Next) izena du. Botere esleitzaille bat da<sup>14</sup>.

Hona hemen haren helburu soziala:

«Bilboko lurralde-eremuko ekoizpen-sistemaren garapena zuzenean eta zeharka bultzatzen laguntzen duten ekonomia- eta gizarte-jarduerak sustatu, garatu eta sendotzea, aberastasuna eta ekonomia-, kultura- eta enplegu-jarduera sortzen duten era guztietako ekimenak sustatuz, betiere jarduerak Hiriaren interes orokorreari onura badakarkie».

BILBAO EKINTZA 2011n sortu zuen Udalak Tokiko Enpresa Erakunde Publiko (TEEP) gisa, hiru sozietate publikok, Bilbao Next sozietateak besteak beste, aktiboak eta pasiboak lagata<sup>15</sup>.

Udal-eskumenak zuzenean eta era deszentralizatu batez garatzea du helburutzat, honako arlo hauetan zehazki: ekonomia sustatzea, Bilbo turismo-helmuga gisa sustatzea, enplegu-planak, prestakuntza, langabeak okupatzea eta laneratzea<sup>16</sup>.

Hornitzeko jarduerak lehia askearen eta gastu publikoko eraginkortasunaren printzipioak bete behar ditu, bai eta sektore publikoko kontratuen arloko legeria

<sup>14</sup> Haren administrazio-kontseiluak 2008ko urriaren 7an onartu zituen kontratazioari buruzko barneko jarraibideak, eta erakundeak jarraitu beharreko kontratazio-prozedurak arautzen dituzte horiek.

<sup>15</sup> Beste biak BILBAO TURISMO SAU eta LAN EKINTZA-BILBAO SAU dira. TEEPak zuzenbide pribatuaren arabera zuzentzen diren izaera publikoko erakundeak dira, eta prestazio-jarduerak egiteko, zerbitzuak kudeatzeko edota kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak ekoizteko sortzen dira. Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 53. artikulua. 1997ko apirilaren 15eko BOE, 90 zk. Askotan aldatu da, azkenekoz urriaren 7ko 34/1998 Legearen bidez, BOE-A-1998-23284; uztailaren 1eko 20/1998 Legearen bidez, BOE-A-1998-15583.

<sup>16</sup> Estatutuak 2011ko uztailaren 5eko BOEn argitaratuta, 127. zenbakian.



ere (haren Estatutuen 27. artikulua). Horrez gain, Udalak SAU, Tokiko Erakunde Autonomo eta Enpresa Erakunde Publikoetarako ezartzen dituen irizpide nagusiak ere bete behar dituzte<sup>17</sup>.

## B. Metropoli Fundazioa eta Cities Lab

**10.** Lurraldearen Berrikuntza eta Diseinurako Metropoli Fundazioa 1997ko otsailaren 12an sortu eta Fundazioen Erregistroan inskribatu zen.

Honela definitzen du bere burua: «fundazio-izaerako eta nagusiki irabazi-asmorik gabeko kultur izaerako erakunde pribatua, zeina, sortzaileek hala erabakita, ondarea erakundearen berezko interes orokorreko xedeak egitera bideratuta duen» (Estatutuen 1. artikulua). Estatutuen arabera, hirien eta lurraldeen berrikuntza eta garapena laguntzea du **helburutzat** (Estatutuen 6. artikulua).

**11.** Fundazioei buruzko araudian ezarritako arauen mende dago Fundazioa<sup>18</sup>. Araudi horrek honela definitzen ditu fundazioak: «irabazi-asmorik gabe sortutako erakundeak dira eta, sortzaileek hala nahi dutelako, ondarea interes orokorreko helburuak betetzera bideratzen dute».

Araudi horri jarraikiz (Erregelamenduaren 23. artikulua) fundazioek «jarduera propioak» eta «merkataritzakoak» gara ditzaketela ulertzen da.

Jarduera propiotzat hau jotzen da: fundazioak bere helburuak betetzeko egiten dituen jarduerak, irabazi-asmorik gabeak, prestazioa edo zerbitzua doan edo ordainduta egiten den kontuan hartu gabe.

Fundazioek merkataritzako jarduerak zuzenean garatu ahal izango dituzte, halaber, «beren kontura ekoizpen-bitartekoak eta giza baliabideak, edo haietako bat, antolatzen dituztenean, helburutzat ondasunen edo zerbitzuen

<sup>17</sup> Ikus BILBAO EKINTZA, *Bilbao Ekintza TEEParen kontratazioko barne-jarraibideak. Araudi harmonizatuen mende ez dauden kontratueterako*. 2011ko azaroaren 21. Eskuragarri hemen: [http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?pagename=LanEkintza/Page/LKZ\\_PTPaginaGenerica&cid=1279108900350&c=Page&locale=3000001696](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?pagename=LanEkintza/Page/LKZ_PTPaginaGenerica&cid=1279108900350&c=Page&locale=3000001696).

<sup>18</sup> 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Fundazioei buruzkoa. 2002ko abenduaren 27ko BOE, 310. zk. Honako hauek aldatuta: 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, BOE-A-2015-10566; 26/2013 Legeak, abenduaren 27koak, BOE-A-2013-13723; 10/2014 Legeak, ekainaren 26koak, BOE-A-2014-6726; 26/2013, abenduaren 27koak, BOE-A-2013-13723; 47/2003 Legeak, azaroaren 26koak, BOE-A-2003-21614. 1337/2005 Errege Dekretua, azaroaren 11koa, Estatu-eskumeneko Fundazioen Erregelamendua onartzen duena. 2005eko azaroaren 22ko BOE, 279. zk. «Inoiz ezingo dira sortzaileari edota buruei, horien senar-emazteei edota antzerako harremana duten pertsoneri, laugarren mailarainoko senideei (horiek barne), edota interes orokorreko helburuak dituzten pertsona juridikoei prestazioak ematea helburu duten fundazioak sortu» (3.1 art.).





ekoizpen edo banaketan irabazia lortzeko esku hartzea edukita, betiere haren xedeak zerikusia badu fundazioaren xedeekin edo haien osagarriak badira, eta lehiaren defentsaren arau erregulatzailerak betez betiere».

Manuak xedatzen du fundazioek edozein merkataritza-jarduera egin ahal izango dutela sozietateetan parte hartuz.

**12.** Araudi horren arabera, orobat, fundazioak kontabilitate-emaitzaren % 70 bideratu behar du gutxienez fundazioaren xedeak gauzatzera.

Fundazioak 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldiei dagokienez aurkeztutako kontuen azterketak honako emaitza hauek erakusten ditu:

**2010**eko ekitaldian **merkataritzako** jardueraren salmentak eta diru-sarrerak 983.223,97 € izan dira; zenbateko hori, batez ere, hirigintza-aholkularitzako zerbitzuetatik (982.008,59 €) eta liburu-salmentatik dator. **Jarduera propioen diru-sarrera** gisa zenbatzen dira lankidetzak-hitzarmenengatik eskuratutako 1.110.000 euro, baina horiek bat datoz Agencia Zero Alacant (579.000 €), Murtzia (231.000 €) eta Elx (300.000 €) deitutako hitzarmenekin. Fundazioak merkataritzako jarduera gisa jasotzen du, hortaz, diru-sarrera guztien % 45,93, edota % 47, jarduera propioaren eta merkataritza-jardueraren diru-sarrerak aintzat hartuta.

**2011**ko ekitaldian **merkataritzakoa** deitutako jardueraren salmentak eta diru-sarrerak 1.190.078,74 € izan dira; zenbateko hori, batez ere, hirigintza-aholkularitzako zerbitzuetatik dator (1.187.543,94 €). **Jarduera propioen diru-sarrera** gisa zenbatzen dira lankidetzak-hitzarmenengatik lortutako 362.000 € (Elx hiria –200.000 €–, eta Bilbao Next –162.000 €–). Merkataritzakotzat jotzen duten jardueratik dator, ondorioz, diru-sarrera **guztien** % 73,78, edota % 77, jarduera propioaren eta merkataritzako jardueraren diru-sarrerak aintzat hartuta.

**2012**ko ekitaldian **merkataritzako** jardueraren salmentak eta diru-sarrerak 1.825.878,53 € izan dira, hauetatik dator zehazki: liburu-salmena, 868,50 €; panel fotovoltaikoen energiaren salmenta, 967,08 €; ikerketa-proiektuak egitea, 1.824.042,95 €. Aurten, hain zuzen, **ez dute jarduera propioagatiko diru-sarrerarik jaso kontabilitatean** (jarduerak izaeraren arabera kontabilizatzeko orduan zehaztasun handiagoa eskatzen duen kontabilitate-plan berrira egokitu beharra zegoen aurten lehendabiziko aldiz)<sup>19</sup>.

<sup>19</sup> Irabazi-asmorik gabeko erakunde txikien eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorra, honako honek onartutako irizpideei jarraikiz: 1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituena. 2011ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.



Hortaz, merkataritza-jarduera diru-sarrera guztien % 93,83 da, edota **% 100, jarduera propioaren eta merkataritzakoaren diru-sarrerei dagokienez.**

**2013**ko ekitaldian **merkataritzako** jardueraren salmentak eta diru-sarrerak 820.816,25 € dira. Honakoa da haren jatorria: liburu-salmenta, 573,75 €; panel fotovoltaikoen energiaren salmenta, 708,04 €; eta ikerketa-proiektuak egitea, 819.533,46 €.

Merkataritzako jarduera, beraz, diru-sarrera **guztien** % 58,86 da, edota **% 100, jarduera propioaren eta merkataritzako jardueraren diru-sarrerak aintzat hartuta.**

**13.** Hori horrela, Fundazioak lau ekitaldi horietan egindako jardueren ondoriozko diru-sarrera gehien-gehienak merkataritzako jarduketek eragin dituztela ondorioztatu beharra dago.

**14. Cities Lab SL** 1990etik jardun aktiboan dagoen enpresa da; haren **helburu soziala** hau da: «ikerketa, prestakuntza, aholkularitza eta lan profesionalak egitea lurralde-antolamendu, hirigintza, arkitekturarekin lotuta eta ikerketa-proiektuak diseinatu eta idaztea».

Haren administrazio bakarra Metropoli Fundazioaren presidentea bera da, eta haren xedea ere bat badator Fundazioak gauzatutako jarduerekin.

## **2. Negozio juridikoen azterketa**

### **A. PROMOBISA/Bilbao Next**

#### **a. Bilboko hiria proiektuaren diagnostikoa.**

**15.** 2010eko martxoan, PROMOBISAk Metropoli Fundazioari Bilboko hiria proiektuaren diagnostiko estrategikoa egitea esleitu dio Metropoli Fundazioari. Esleitzearen zenbatekoa 300.000 € da eta 7 hilabeteko iraupena du.

PROMOBISAk Fundazioa zergatik hautatu duen azaltzeko orduan, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat dela eta «*Cities* proiektuen metodologiaren jabea» dela adierazi zuen<sup>20</sup>. Gainera, erakunde egokia dela ere baderitzo «esperientzia eta ezagutza»gatik eta «aurreko proiektuetan laguntzeagatik».

<sup>20</sup> JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTRO NAGUSIA. Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiriak; Ondore-data, 2000ko urtarrilaren 12a; Obra mota, zientifikoa; Proiektuaren izena: Cities. Foroa-Hiria; Egilea: Vegara Gómez, Alfonso Antonio; JIE-zenbakia: M-8946; Ondare-data: 2000ko urtarrilaren 12a; Obra mota, zientifikoa; Proiektuaren izena: Cities. Erreferentzia Metodologikoak. Egilea: Vegara Gómez, Alfonso Antonio; JIE-zenbakia: M-89463.



Metropoli Fundazioak aurkeztutako zerbitzu-eskaintzak, kontratatutak hartzen denak, zehazten du haren edukia.

PROMOBISAK zehazten ditu irizpideak, lerro orientatzaileak eta ordaindu beharreko diru-zenbatekoak.

Sinatutakoaren arabera, Metropoli Fundazioak bere «esperientzia-sare»rako sarbidea ez ezik, «transferentzia teknologikoaren lagapen eksklusibo eta mugagabea» egiten du proiektua eta lanak garatzeko, honako eduki hauek barnean hartuta:

- hiriaren zuzeneko esplorazioa,
- abian dauden planen eta proiektuen azterketa,
- lurralde-testuinguruaren azterlanak,
- Bilboko hiri-lidergoaren azterlanak,
- kartografia kritikoa, erlazio-irisgarritasunari buruzko azterlanak,
- auzoen eta barrutien profil berezituak,
- hiri-egitura eta -irudiari buruzko azterlanak,
- *expert advisory* panela, erakundeetan parte hartzeko foro eta bidea, diagnostiko estrategikoa eta,
- ekimenaren emaitzak aurkeztu eta ezagutarazteko ekitaldietan parte hartzea.

Kontratazio-jarraibideen 10. artikularen babesean egin da kontratazioa, hau xedatzen baitu: «kontratazio-batzordea eskuduna da kontratuaren ezaugarrien arabera berriazko kontratazio-prozedurak baimentzeko»<sup>21</sup>.

## 16. PROMOBISAK negozio hori «hitzarmena» izendatu du.

PROMOBISAK betebeharrak hauek ditu: irizpideak, lerro orientatzaileak eta ordaindu beharreko diru-zenbatekoak jakinaraztea. Kontratu guztietan daude eginkizun horiek.

Fundazioa *Cities* proiektuen metodologiaren jabea izatea ezin da argudio nahikotzat hartu zerbitzu-emailea hautatzeko orduan lehia-prozesua kentzeko.

Gainera, sozietate publikoak kontratazio-jarraibideen 10. artikuluan oinarritu du negozio juridikoa egiteko eskumena; hori horrela, kontratu-edukia duela ondorioztatu beharra dago.

---

<sup>21</sup> Kontratazio-jarraibideen 10. artikulua dioenez, honako eginkizun hauek izango ditu Kontratazio Batzordeak: -Presidenteari proposamena aurkeztea 300.000 euro baino gehiagoko balio estimatua duten obra-esleipenen eta pleguen kasuan, eta 100.000 eurotik gora direnean gainerako kontratuei dagokienez; -50.000 eta 18.000 euro baino gehiagoko balio estimatua duten obra-kontratazioen berri behar bezala jasotzea; -kontratuaren ezaugarrien arabera berriazko kontratazio-prozedurak baimentzea.



Horregatik guztiagatik, negozio juridiko horrek kontratu-edukia duela ondorioztatu beharra dago, eta emalea hautatzeko prozeduran ez dituztela bermatu honako printzipio hauek: publikotasuna, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna eta diskriminaziorik eza.

Era berean, HKEEK hau ere jakinarazi zuen: «Esleipen honetan SPKLren 175.a artikulua urratu zen; izan ere ez ziren egiaztatu esleipenduna zela kontratuaren exekuzioa gauza zezakeen enpresari bakarra justifikatuko zuten arrazoi artistiko, tekniko edo eskusibotasun eskubideak»<sup>22</sup>.

## **b. Bilboko hiriaren nazioarteko posizionamendua bultzatzea**

**17. BILBAO NEXT**eko zuzendari nagusiak eta administrazio-kontseiluko buruak, 2011ko otsailean, proposatu zuten Metropoli Fundazioarekin interes orokorreko jardueretarako enpresen lankidetzaren hitzarmen bat egitea, Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera<sup>23</sup>. Martxoaren 1ean egin zuten, eta «dohaintza» izena eman zioten<sup>24</sup>. Haren zenbatekoa 162.000 € zen.

Fundazioa hautatzeko oinarrien artean, honako hau zehaztu du Bilbao Next sozietateak:

<sup>22</sup> HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA. *Bilboko Udalaren txostena 2010*, 2012ko azaroaren 8a. 2013ko otsailaren 11ko EHAA, 29. zk.

Organo fiskalizatzaileak honako hau ondorioztatu zuen Bilbao Next SAK [PROMOBISA] Metropoli Fundazioari zuzenean egindako esleipenari buruz: «Bilbao Next SAK 2010ean zuzenean eta 300.000 euroren zenbatekoan Bilboko hiria proiektuaren diagnostiko estrategikoa egiteko lana esleitu zion. Esleipen honetan SPKLren 175 a) artikulua urratu zen, izan ere ez ziren egiaztatu esleipenduna zela kontratuaren exekuzioa gauza zezakeen enpresari bakarra justifikatuko zuten arrazoi artistiko, tekniko edo eskusibotasun eskubideak».

<sup>23</sup> Irabazi-asmorik gabeko erakundearen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien tributu-araubideari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legea, (2002ko abenduaren 24ko BOE, 307. zenbakia). Aldatu egiten dira 19. eta 20. artikulua eta gehitu egiten da 5. xedapen iragankorra, honako hauen bitartez: 27/2014 Legea, azaroaren 27koa, BOE-A-2014-12328; 34/2011 Legea, urriaren 4koa, BOE-A-2011-15624; 14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa, BOE-A-2011-9617; 35/2006 Legea, azaroaren 28koa, BOE-A-2006-20764; 4/2006 Legea, martxoaren 29koa, BOE-A-2006-5692; 22/2005 Legea, azaroaren 18koa, BOE-A-2005-19003; 4/2004 Legea, abenduaren 29koa, BOE-A-2004-21831; 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, BOE-A-2003-23936; 46/2003 Legea, azaroaren 25ekoa, BOE-A-2003-21539.

<sup>24</sup> Dohaintzei, funts publikoen doako erabilera diren aldetik, aplikatu beharreko araubide juridikoa Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean jasota dago, eta publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren zein diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatu beharra xedatzen du horrek. Diru-laguntzaren kontzeptua. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 2. artikulua. 2003ko azaroaren 18ko BOE, 276. zenbakia, sarri aldatuta, azkenekoz urriaren 1eko 40/2015 Legearen bidez, BOE-A-2015-10566.



- Irabazi-asmorik gabeko erakundea da.
- Hautatutako metodologiaren jabea da.
- Aurreko proiektu batzuetan egoki lagundu du, hala nola Shanghaiko 2010eko Nazioarteko Erakusketan, Lee Kuan Yew sarian eta *25 proiektu, 25 urte* liburua garatzen.

Helburutzat Bilboko hiria nazioarteko posizionamendura bultzatzea izango litzateke, «Metropoli Fundazioak garatutako Lurralde Adimendunen filosofian oinarritutako irizpideen arabera». Proiektuak «Arte, teknologia eta diseinua»ren inguruko jarduerak ikertzea bilatuko luke.

- Bilbao Next sozietatea konpromiso hauek hartu ditu:

«Metropoli Fundazioari 162.000 euroko ekarpena egitea, dohaintza gisa (BEZari lotu gabe), Bilbo hiriaren nazioarteko posizionamenduko estrategietarako, bai eta Bilboko hiri-ekimenak nazioarteko hainbat forotan zabaltzeko ere, sinergikoak eta positiboak direla jotzen diren Metropoli Fundazioaren xedek betetzeko».

Fundazioak honako konpromisoak hartu ditu:

- Hiria bultzatzen duten ikerketa-lanak eta programak egitea («World Design Capital», besteak beste), Udalak emandako orientabideak eta fundazioaren aurretiko esperientzia oinarri hartuta.

Espedientea izapidetzean hau adierazi dute:

«Metropoli Fundazioak lan horren emaitzak barnean erabili ahal izango ditu egiten ari den beste ikerketa batzuen zati gisa, baita zabaltzeko edo jendaurrean erakusteko ere, betiere onartzen bada Bilboko Udala dela azterlanaren jabea eta, komunikazio-ekintza horiek egiteko, aurretiaz haren baimena eskuratzen badu».

**18.** Bilbao Next sozietateak irabazi-asmorik gabeko fundazioa eta hautatutako metodologiaren jabea izatea aurkeztu du erabilitako forma juridikoaren zurigarri.

Egiaztatu den moduan, fundazioak merkataritzako jardueretan ematen du ia jarduera osoa 2010-2013 aldian, eta jarduera propiotzat kontabilizatzen ditu txosten honetan aztertutakoen antzeko kontratuak. Justifikazio hori, horregatik, ez da onargarria.

Bi aldeen betebeharrak ikusita, ondorioztatzen da Metropoli Fundazioak zerbitzu bat diruzko zenbateko baten truke –hori «dohaintza» deituta– egiteko konpromisoa hartu duela.

Negozio juridikotik ondorioztatzen da, halaber, hitzarmenaren xede den azterlanaren jabetza Bilboko Udalari dagokiola.

Hori horrela, kostubidezkotasuna eta hornikuntza ezaugarri dituela eta negozioak kontratu-izaera duela aintzat hartuta, ez dago justifikatuta hitzarmenaren figura hautatzea.



Kontratuaren figura aukeratu balitz, lehenik eta behin, aztertu beharko zen kontratu horrek SPKLTBren 170.d artikuluan jasotako erregulazioa aplikatzea justifikatuko zuketena baldintza teknikoak eta artistikoan barnean hartzen zituen. Hori horrela, kontratua betearazteko gauza, hautatutako metodologiaren jabea delako, fundazioa baino ez zela izango eta nahitaezko lehia horregatik ez dutela baimendu dioen argudioa behar bezala arrazoituta azaldu beharko zuten, eta ez dute halakorik egin.

**19.** Horregatik guztiagatik, ondorioztatu beharra dago erlazioaren izaera juridikoa ez dela diru-laguntza bidezkoa, kontratu bidezkoa baizik, eta, ondorioz, Udalak zerbitzu horietaz hornitzeko, errespetatu beharko zituzkeen SPKLTBn jasotako publikotasun-, gardentasun- eta lehiakortasun-printzipioak; ez da egiaztatu, izan ere, kontratua gauzatzeko gaitasuna zuen enpresa bakarra aipatutako Fundazioa zenik.

Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Erregelamenduaren 27.1 artikulua honako hau xedatzen du<sup>25</sup>:

«Deusezak izango dira liberalitate hutsez egindako diru-laguntza akordioak».

Administrazioaren sustapen-jardueraren adierazpen diren sariak liberalitate-egintzen baita ezkutatzeko aukera ukatu du jurisprudentziak, gainera, eta, horrelakoak emateko orduan, irmotasunez ukatu du *animus donandi* oro.

1988eko ekainaren 9ko AGEN adierazten den bezala:

«Sen onak esaten digu, gauzen izaerarekin bat datorrelako, bateraezintasuna dagoela administrazioari agindutako gizartearen interes orokorrak kudeatzeko xedearen eta liberalitate-egintzak –eta funts publikoak, ondorioz, partikularren ondareetara eskualdatzea– egitearen artean».

Auzitegi Gorenak hau ere adierazten du<sup>26</sup>:

«Pentsaezina Administrazioaren eremuan, haren xedeen eta jatorrien aurkakoa delako, gutxienez liberalitate hutseko egintzetan».

### **c. Kontratu txikiak**

**20.** BILBAO NEXT sozietateak, 2011n, bi kontratu txiki esleitu zizkion Metropoli Fundazioari beste eskaintzarik eskatu gabe.

Haietako lehena «World Design Capital izateko hautagaitza aurkezten laguntzea»ri dagokionez. Kontratua 2011ko ekainaren 20an sinatu zuten. Haren

<sup>25</sup> 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena; 1955eko uztailaren 15eko BOE, 196. zenbakia.

<sup>26</sup> AGE, 1977ko maiatzaren 27koa.



xedea hauxe da: «Metropoli Fundazioak Bilbao Next sozietateari Diseinuaren Munduko Hiriburuaren deialdiaren prentsaurrekoa eta epaimahaiaren bisita zabaldu eta prestatzeko materialak egiteko eman beharreko zerbitzuak arautzea». Zerbitzu horiek 2011ko ekainetik uztailean bitartean egin behar dituzte, eta 10.000 euro balio dute, «gutxi gorabehera».

Itsas Museoa *Shangai* eskultura muntatzeari buruzkoa zen bigarrena. Haren xedea hauxe da: «Metropoli Fundazioak Bilbao Next sozietateari Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa *Argizko Larruzala* eskultura behar bezala ezartzeko eman beharreko zerbitzuak arautzea». Zerbitzu horiek 2011ko uztailean eman behar dituzte, eta 2.250 euro balio dute.

**21.** Metodologia jakin bat erabiltzeko eskubide eskusiboa duen erakunde bat egote hutsak ezin du justifikatu kontratuak zuzenean hari esleitzea, kontratatutako zerbitzua gauzatzeko ezinbestekoa dela egiaztatu ezean.

SPKLTBren 1. artikulua dioenez, kontratazio publikoek eraginkortasunez erabili behar dituzte lanak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko funtsak, **dauden premiak alde aurretik definituz**, eskakizun hori kontratazio publikoa zuzentzen duten printzipioen maila berean jarrita<sup>27</sup>. Hirugarrenekin kontratatzeko beharren justifikazio hori agindua da kontratazio publiko guztietan. Hori dela eta, «Sektore publikoko kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa» izenburuko kapituluaren 22.1 artikulua erantsi da, hain zuzen ere (SPKLTBren lehenengo liburuko I. tituluko 1. kapituluaren):

«Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko **behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik**. Horretarako, **zehatz-mehatz zehaztu behar dira** egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere. Horren guztiaren berri jaso behar da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua esleitzeko prozedurari ekin aurretik».

APKLTBren 202.1 artikulua, «Kontratua justifikatzea eta prezioa zehaztea» izenburua duena, hau xedatzen du:

«Kontratua egiteko interesa daukan zerbitzuaren txostena gehitu behar zaio kontratazio-espeditenteari. Txostenarekin behar bezala zuritu behar dena zera da: edo administrazioak daukan giza baliabideak eta baliabide materialak nahikoak ez direla, edo ez direla egokiak,

<sup>27</sup> Auzitegi Gorenak «behar bezala zuritu behar dena» esapidea «arrazoitzeko» betebeharrarekin oro har ulertzen denaz haragoko adierarekin interpretatu du, eta hori hala da, manua «justifikatzea»z eta ez «motibatze edo motibazioa»z hitzen egiten duelako ez ezik, baita aditz horrekin batera behar bezala ere adierazita baitago; hori horrela, ez da aski arauaren egitatezko baldintzak betetzen direla esplizituki aipatzea, horrez gain beharrezkoa baita egitatezko baldintza horiek behar bezala egiaztatuta gelditu daitezkeen (AGE, 2011ko azaroaren 3koa).



edo ez dela baliabideak gehitzerik komeni, hain zuzen kontratu horrekin erantzun nahi diren premiak betetzeko».

Auzitegi Gorenak «behar bezala zuritu behar dena» esapidea «arrazoitzeko» betebeharrarekin oro har ulertzen denaz haragoko adierarekin interpretatu du, eta hori hala da, manuak «justifikatzea»z eta ez «motibatze edo motibazioa»z hitzen egiten duelako ez ezik, baita aditz horrekin batera behar bezala ere adierazita baitago; hori horrela, ez da aski arauaren egitatezko baldintzak betetzen direla esplizituki aipatzea, horrez gain beharrezkoa baita egitatezko baldintza horiek behar bezala egiaztatuta geldi daitezen (AGE, 2011ko azaroaren 3koa).

## B. Bilboko Udala

**22.** 2012ko maiatzaren 11n lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Bilboko Udalak eta Metropoli Fundazioak bi proiektu garatzeko. Hamalau (14) hilabeteko iraupena zuen eta Udalak 563.000 euroko ekarpena egin zuen<sup>28</sup>.

Udalak horren bidez honako proiektu hauek garatzea agindu zion Metropoli Fundazioari:

- «1. **Auzoko bihotzak.** Bilbo Hiri Osoa. Bilboko auzo batzuk eta hiriarekin duten lotura aktibatzeke azterlana da.
2. **Sabino Arana A-8 Geroa.** Sabino Arana, A-8 autobidea Bilborako sarbidean eta eremu horrek eragindako auzoak (zehazki Errekalde eta Basurtu) barnean hartzen dituen hiri-eremuaren etorkizunari buruzko azterlana da.

Bilboko Udalaren Lan eta Zerbitzuen Arloak hauxe egiteko konpromisoa hartu zuen:

- «1. Ikerketen garapenean zehar irizpideak eta ildo orientatzaileak ematea.
2. Bilboko Udalean ikerketaren xedearekin lotuta eskuragarri dagoen informazio teknikoa ematea.
3. Metropoli Fundazioari lan horretarako ezarritako diru-zenbatekoak ematea, hitzarmenean adierazitakoari jarraikiz.
4. Hiri-ikerketara horren ondorioetarako erakunde-babesa bultzatzea Udalaren eta Metropoli Fundazioaren artean adostu ondoren».

Metropoli Fundazioak honako konpromisoak hartu ditu:

- «1. Ekimena garatzen laguntzea, Fundazioaren Bikaintasun Sarerako sarbidea emanaz (hiriak, erakundeak, unibertsitateak eta nazioarteko adituak).

---

<sup>28</sup> 2013ko uztailaren 8an luzatu egin zuten hitzarmenaren indarraldia 5 hilabete gehiagorako. Amaitzeko data, hortaz, 2013ko abenduaren 11 zuen. Administrazioak luzapena arrazoitu zuen parte hartzeko mekanismoak areagotzeak denboran luzatzea ekarri zuelako, hitzarmenaren luzapen osoa hasieran planifikatzean aurreikusi ez zutena.





2. "AUZOKO BIHOTZAK" eta "SABINO ARANA A-8 GEROA" ikerketak koordinatu eta garatzea, Hitzarmen honen I. eranskinean zehaztutako metodologia, orientazioa, edukia eta ikuspegia aintzat hartuta.

3. Ekimenaren emaitzak aurkeztu eta ezagutarazteko ekitaldietan parte hartzea».

Az kentzeko araubideak aplikatu beharreko legerian eta kontratuei buruzko legerian xedatutakoa jarraituko du; eskudun jurisdikzioari dagokionez, berriz, administrazio-izaera duela dio, eta horretan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez «toki-erakundeen kontratazioa arautzen duen legerian ezarritakoa» beteko duela.

**23.** Hitzarmenaren lehen estipulazioak dio Udalak fundazio bati «agindu» egiten diola bi azterlan egin eta garatzea eta horiek zabaltzea.

Aldeen konpromisoak aztertuta, haren kontratu-edukia ondorioztatu behar da. Udalak diru-ekarpena egiten du kontratatzen duenak emandako jarraibide batzuen arabera gauzatutako zerbitzu batzuen truke.

Hitzarmenak xedatzen du az kentzeko araubidea aplikatu beharreko legerian eta kontratuei buruzko legerian xedatutakora egokituko dela. Eskudun jurisdikzioari dagokionez, negozioa «toki-erakundeen kontratazioa arautzen duen legerian ezarritakoa»ri jarraikiz zuzendu eta interpretatuko dela ezarrita dago.

**24.** Administrazioak hitzarmenaren bidea zergatik aukeratu duen azaltzeko orduan honako hau dio:

Egindako negozio juridikoa kontratu bat baino konplexuagoa da haren gehiegizko edukiagatik. Udalak erabilitako argudioekin bat etorritik, negozio juridikoak ez du barnean hartzen azterlan bat egitea bakarrik, baizik eta hura zabaltzeko eta Bilboko hiriaren nazioarteko irudia proiektatzeko lanak ere jasotzen dituela.

Aukera guztiak aztertuta, «Metropoli Fundazioa erantzukizun hori bere gain hartzeko eta nahi dituen emaitzak arrakastaz lortzeko behar diren zereginak gauzatzeko gaitasuna duen erakunde bakarra» dela jo du Udalak, bai eta «Udalari Bilboko hirirako nahi den sustapen eta zabalpena emateko» ere.

Lehen argudioa onartzerik ez dago, kontratuak barnean zerbitzu bat baino gehiago hartzen badu ere, udalak nahi dituen baldintza guztiak jasotzen dituen kontratazio ireki bat egiteko aukera baitago.

Bigarren argudioa –kontratututako fundazioa zerbitzua emateko gaitasuna duen bakarra dela esaten duena, alegia– ere ez dago kontraesanetan kontratazio irekia egitearekin; horrek, izan ere, edozein erakunderi eskaintzak egitea eta Administrazioari onena hautatzea ahalbidetzen baitie, lehia-prozedura errespetaturik betiere.



Hautaketaren emaitza hipotetikoki bera izan balitz ere, aurreikusgarria da oso fundazioak, lehiakideei aurre egiteko, eskaintza hobek egitea kalitateari eta prezioari dagokienez, eta hori beti da desiragarria interes orokorrarentzat<sup>29</sup>.

**25.** Hori guztia dela eta, ondorioztatu behar dugu harreman juridikoaren xedea bat datorrela SPKLTBren Atariko Tituluan jasotako zerbitzu-kontratuarekin.

Ondorio hori bera ateratzen du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) honako hau adierazten baitu<sup>30</sup>:

«Hitzarmenak xede dituen prestazioak administrazioko kontratuari dagozkionak dira, SPKLTBari meneratuak; honenbestez, urratu egin da SPKLTBaren 142. artikulua xedatzen duena administrazio publikoetako kontratuen esleipenerako lizitazioen deialdiei eskagarria zaien publikotasunari dagokionez».

### C. BILBAO EKINTZA

**26.** BILBAO EKINTZAK bi kontratu txiki esleitu dizkio guztira Metropoli Fundazioari eta sei kontratu gehiago, txikiak ere bai, Cities Lab enpresari.

2012an, lehen kontratu bat sinatu zuten Metropoli Fundazioarekin, Singapurreko *Stand World Cities Summit EXPO 2012* erakusketaren harira hainbat zerbitzu eskaintzea xedetzat hartuta. Haren zenbatekoa 8.975 euro da. Kontratuak honakoak hartzen ditu barnean:

- Erakustokia diseinatzeko laguntza teknikoa.
- Lantaldea diseinuan laguntzen duen aholkularitza-enpresa bat kontratatzea.
- Erakustokia osatzea.

2012ko maiatzean, bigarren kontratu bat sinatu zuten Metropoli Fundazioarekin «Bilboren jardunbidea-*The Story of Bilbao*» dokumentua egiteko. Haren zenbatekoa 10.925 euro da.

Kontratu horrek «luzapena» eta hainbat doikuntza ere behar izan zituen «*The Story of Bilbao*» proiektuaren gainean (lehen kontratua Cities Lab SLarekin), eta 2013ko maiatzaren 3an egin zen. Haren zenbatekoa 3.640 euro da.

2012ko abenduan beste kontratu bat sinatu zuten (Cities Lab sozietatearekin egindako bigarren kontratua) 15.000 eurotan. Bilbao Art District 2013 izeneko dokumentazioa eta aurkezpena egitea du xedetzat. Bilboko Arteen Barrutiari

<sup>29</sup> Horri dagokionez, adibide gisa balio lezake fundazioa aurkeztu eta esleipendun suertatutako lizitazioen batek, hala nola «Coruña Futura» izeneko proiektu estrategikoaren formulazioan edo «Quart de Poblet-Manises (Valentzia) udalerrietako Elcano sektoreko Maisu Plana idazteko hiri-plangintza eta arkitekturako zerbitzuen» lizitazioan.

<sup>30</sup> HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA *Bilboko Udalaren fiskalizazio-txostena 2013*, 59. or. Eskuragarri hemen: <http://www.txostenak.es/pdf/7710bilbao2013prt.pdf>.



buruzko power point bat sortzeko lan bat da. Horren barruan kontzeptua formalizatu, nazioarteko erreferentziak aurkeztu eta ezartzeko aukerak esploratu egin beharra zegoen, eta horren osagarri «Bilbo Arteen Barrutia» izeneko proiektua ere egin beharko da.

2013ko maiatzean, laguntza teknikoko beste kontratu bat sinatu zen (hirugarren kontratua Cities Lab sozietatearekin) ART+TECH+DESIGN izenekoaren aurkezpena egiteko. Edukiak jasotzen dituen dokumentu grafiko bat eta aurkezpen bat egitea du helburutzat. Cities Lab sozietateari baino ez zitzaion aurrekontua eskatu, «hirien garapenarekin zerikusia duten gaietan ospea duen enpresa» gisa, eta 6.090 euro ordaindu ziren.

Bilbon 2013ko ekainaren 13, 14 eta 15ean egin zen World Cities Summit alkateen foroaren programa zela-eta, bi kontratu egin ziren (laugarren eta bosgarren kontratua Cities Lab sozietatearekin).

Laugarren kontratuak (*Bilbao Show Case* diseinua) «komunikazioaren eta marketinaren esparruko hainbat hornitzailei zerbitzuak kontratatzea» du helburutzat. Erakusketa-eremurako laguntza tekniko kontratatu zen zehazki (bisita, standa diseinatzea, planoak egitea, standerako edukiak prestatzea). Haren zenbatekoa 2.110,00 euro da.

Bosgarren kontratua, Urban Solutions berrikuntzako euskal enpresen txostena deitzen da, eta haren xedea ere bada «komunikazioaren eta marketinaren esparruko hainbat hornitzailei zerbitzuak kontratatzea». Kontratutako proposamenak, orduan, hauek hartzen ditu barnean: diseinua, marka eta logoa, azala, eduki-aurkibidea, irudiak, dokumentua formatu digitalean eta inprimaturik sortzea. Haren zenbatekoa 7.980,00 € da.

2014an, seigarren kontratu bat egin zen Cities Lab enpresarekin Singapurren egin beharreko Stand World Cities SUMMIT EXPO 2014 erakusketarekin lotuta; standa diseinatzea zuen xedetzat, 8.750,50 eurokoa zen.

**27. BILBAO EKINTZAK (2012, 2013 eta 2014an) guztira zortzi kontratu txiki esleitu zituen zuzenean; bi Metropoli Fundazioari eta sei Cities Lab enpresari.**

Bi erakundeek A.V.G. dute presidente eta administratzaile bakar gisa, hurrenez hurren.

Hauek dira kontratatutako zenbatekoak:

Urtea	Zenbatekoa
2012	34.900 €
2013	19.820 €
2014	8.750 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>63.470 €</b>

Cities Lab enpresaren helburu sozialaren barruan ez daude eskatutako jarduerak jasota.



Egindako kontratu-egitura guztia eta operadore ekonomiko bati lehia askea bermatzen duen prozesurik aurretik egin gabe emandako diru publikoaren zenbateko osoa –1.475.000 €– aztertu ondoren, ondorioztatu beharra dago hobetzeko tarte handia dagoela kontratazio-prozesu horietan lehia errespetatzeari dagokionez. Hobekuntza horrek abantailak ekarriko dizkie, zalantzarik gabe, herritarrei<sup>31</sup>.

## IV. Ondorioak

**LEHENENGOA.-** Kontratazioan behar den efizientzia lortzeko eta operadoreen artean aukera-berdintasuna bermatzeko behar adina tresna jartzen ditu kontratazioari buruzko araudiak administrazioen esku.

Publikotasun- eta lehia-printzipioak funtsezkoak dira interes orokorraren mesedetan onura horiek lortzearren. Administrazioek printzipio horiek errespetatzea saihestearren kontratazio-era desegokietara jotzea hertsiki saihestu behar dute.

**BIGARRENA.-** Udalak Metropoli Fundazioarekin kontratazioaren ordezkotara hainbat bide erabiliz –horri esker kontratu baten berezko ordainak erdiesteko– lotura egitea erabaki izanak lehia mugatzea ez ezik, justifikaziorik ez duen abantaila ere ekarri dio erakunde horri.

**HIRUGARRENA.-** Erakunde horrek irabazi-asmorik ez duela alegatzea kontraesanetan dago Fundazioaren merkataritza-jarduera egiaztatuarekin, parte hartzen duen negozio juridikoetan kostubidezkotasuna egotearekin eta Administrazioari eskaintzen dizkion hornidura-zerbitzuen edukiarekin.

**LAUGARRENA.-** Behar diren zerbitzuak emateko gauza den erakunde bakarra Fundazioa dela Udalak argudiatzeak ere ez du funtsik negozio juridikoen eduki materiala kontuan harturik.

Interes orokorraren berme egokia egoteko kontratazio-prozesu bat ireki beharra egongo zen, horretan, aukera-berdintasuna bermaturik, hainbat enpresak lehiari aurkezteko aukera izan zezaten. Horri esker, herritarrek abantailak lortu ahal izango zituzten kalitate eta prezio eskaintza hobekien eskuratuta.

---

<sup>31</sup> Ikus LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: *Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko gida*. Madril, 2010eko apirilaren 27a. Eskuragarri hemen: [https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias\\_y\\_recomendaciones/GUIA\\_CONTRATACION\\_v4.pdf](https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones/GUIA_CONTRATACION_v4.pdf).